

Alemanian bizi den Izaskun Graciak 'Ohe hutsetan' olerki bilduma ateratu du

:: F. I.

DONOSTIA. Hilabete gutxi batzuk dira Balea Zuria argitaletxea sortu zela, euskarazko poesiari plaza berria eman nahian. Lehenbizi, izakoz azaroan, Luis Garde nafarraren 'Barbaroak baratzean' publikatu zuen, eta orain Izaskun Gracia Quintanaren 'Ohe hutsetan' bildumarekin datorrigu.

Izaskun Gracia (Bilbo, 1977) Euskal Filologian lizentziatua da. Ama hizkuntza gaztelania du eta gaztelaniazko liburu batzuk ere baditu publikatuak. Ele-biko liburu bat ere plazaratu zuen 2012an, 'Ártica/Artikoa' zeritzana.

Duela zapi urte Berliñera joan zen bizi izatera eta diseinu lanak egiten ditu bertan. Bizitoki-aldaketa hori guztiz fuintsezkoa da oraingo liburu hau uler

Generoa: Poesia.
Argitaletxea: Balea Zuria.
Orrialdeak: 77.
Prezioa: 10 euro.

duenez: «Liburu hau Alemanian idatzi dut eta identitatea da gaietako bat. Atzerrian dena desberdina da: jana, ohiturak, jendea agurtzeko modua... zerotik ikasi behar duzu guztia, ume bat bezalako zara, baduzu identitatea galtzeko beldurra».

«Neure burua ezagutzeko idazten dut», aitortu du. «Analtikoa naiz eta dena kontrolpean edukitzea gustatzen zait, nahiz ezinezkoa den».

Maitasuna eta desamodioa dira liburu gaitako batzuk, «baina batez ere harremanei buruz idatzi dut. Denboraren poderioz, harremanak galdu egiten dira. Normala da eta onartu beharrean gara. Han Alemanian egiten dituzun harremanak desberdinak dira».

Aritz Gorrotzategi editorearen aburuz, «izaskunek lortua du denok nahi duguna: ahots propio bat, eta ez-ohikoa gainera».

Karlos Cid Abasolo, poesiarekin jolasten dakien euskal madrildarra

Batik bat itzultzaile gisa da ezaguna, baina aspaldi hasi zen poemak idazten eta orain lehen bilduma plazaratu du, ludiko eta ironikoa

:: F. IBARGUTXI

DONOSTIA. Karlos Cid Abasolo (Madril, 1963) itzultzaile gisa ezagutu du orain arte. Batik bat txekierako literatura euskaratu izan du. Mutikotan hasi zen euskara ikasten, bere kabuz lehenbizi, Madrildiko Euskal Etxean gero, eta ondoren euskara-irakasle jardun zuen. Filologiako ikasketak egin eta aspalditik Madrildiko Complutense Unibertsitatean ari da irakasten. Beste batzuek, berriz, Euskadi Iratiko saioagatik ezagutuko dute, badira eta zortzi urte 'Faktoria' irratsaioan XabierAmurizarekin batera hizketa egiten duela honetaz eta hartaz.

Baina Karlos Cidek betidanik idatzi izan ditu poemak, eta oraintxe bere lehenbizi bilduma plazaratu du: 'Keinu konplizeak' (Susa). Gizon oso bromoso eta alai da, eta poemak idazterakoan ez zaio aldar-tea alda-tzen. Liburu honetako ezau-garirik nabarmenena horixe da, hain zuzen ere: umorea.

Esan bezala, aspaldi hasi zen olerkiak idazten. Liburu honetako poema batzuk, 'Lokamutsa' izenburuko lehenengo atalean datozeneko batzuk, alegia, duela 23-24 urte idatzitakoak dira. Ondoren eten bat etorri zen, hogei urtekoa, eta gero berriro heldu zion poemagintzari. Alerik berrienak liburuak azken atalean daude, 'Azken apala' delakoan.

Karlos Cidek aurkezpen ekitaldian adierazi duenez, «bizi izan ditudanak, ikusi ditudanak -filmetan eta-

eta irakurri ditudanak agertzen dira liburu nonetan. Irudimena ere erabili dut, hala ere. Eta uste dut nire olerkiok mikroerrelatoak ere izan daitezkeela, narratzaile ere banez poemak idaztean».

Aitaren heriotza

Ironia handia omen dago olerkietan. «Badago ironia triste bat ere, baina saiatu naiz ironia irribarretsu batekin idazten. Ironia horrek, adibidez, lagundu zidan aitaren heriotzari buruzko olerkiak idazten». Bestalde, uste du liburu egokia izan daitekeela «sekula poesiarik irakurri ez dutentzat ere. Idaztea ariketa ludikoa izan da eta espero dut irakurleak ere disfrutatzea. Baina hausnarketarako aukera ere ematen du liburuak».

Liburuan badago erlatibozko esaldiei buruzko poema bat, beste bat «historiako musurik luzeenaz», Hitchcocken 'Notorious' filmekoaz; euskaltasun folklorikoa da beste gai bat; 'Pretty Woman'-i buruz ere idatzi du...

Leire Lopez Ziluaga, Susa etxeko editorearen iritziz, «jolasa» da liburu hau ongien definitzen duena. Karlos Cidi oso atsegina gertatu omen zaio argitaletxearekiko harremana: «Leire etorri zen Madrila eta Euskal Etxean egin genuen lan. Lehen, poemak flotatu egiten zuten, orain igerian egiten dute. Igerian ikasi ez eta ito egin diren poemak ez ditugu sartu liburuan».

Egileak adierazi duenez, «zorroztasunez eta malgutasunez» egin du lan Lopez Ziluaga editorearekin. «Hasi ginen bertsiop bakoitzari letra bat jartzen, A-tik ghasita, eta S-raino iritsi ginen».

Damaso aitonari eskaini dio liburu, «erdalduna baten ere, euskararekin maitemintzeko bidea erakutsi zidalako».



Karlos Cid.



KEINU KONPLIZEAK
CARLOS CID

Generoa: Poesia.
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 82.
Prezioa: 13,50 euro.



Maixa Zugasti, bere bigarren nobela eskuan duela. :: IÑIGO SÁNCHEZ

Gerraren ondorioak jasan zituen jende xumearen istorioak

'Ahotsak eta itzalak' eleberria aurkeztu du Maixa Zugastik, 18 urtez ondu duen lana

:: N. AZURMENDI

DONOSTIA. «Antzematen da idaztearen minak jotako emakume dela» esan zuen Ereineko editore Inazio Mugika Iraolak 1973an Tolosan jaiotako Maixa Zugastiri buruz haren 'Ahotsak eta itzalak' eleberriaren aurkezpenean.

Orain dela hilabete batzuk, Irun Hiria saria irabazitako 'L.A.A.' indarkeria matxistari buruzko eleberri bati esker izan zuten irakurleek Hernaniko ikastetxe batean literatura irakasten duen Maixa Zugastiren berri. Bigarren eleberria ekarri du orain, bestearen oso desberdina. Ordena aldatuta etorri da, idatzi zuen aurrena baita.

Luze jo du lanaren osaketak. Orain dela 18 urte bururatu zitzaion sorrerako ideia, eta 10 eskaini zizkion idazketari. Gauaz joan zen eleberria josten, haurrak oheratu eta gero, nahi zuelako «semeek literatura maitatzea, eta ez ikustea ama lapurtzen zien zerbait bezala».

Berrikuspen eta egokitzapenen garaia etorri zen gero. Hiru bider moztu zuen, makina bat buelta eman zizkion, eta azkenean, aurkezpen biziak eskertu zuen editoreen laguntzarekin, 240 orrialdeko liburura ekarri du istorioa.

1936ko udaberri-amaiera euri-tsu batean abiatzen den nobelak Gerra Zibila eta haren ondorengo erbestealdia ditu atze-oihal, baina ez da eleberri historikoa. «Nire helburua ez zen eleberri historiko bat idaztea, gerratearen ondorio latzak jasan zituen jende xumearen istorio bat osatu nahi izan dut», esan zuen idazleak aurkezpenean.

Fikzioa da, baina izan zitezkeen benetako gertakietan oinarritutako nobela, kontatzen dituenak, eta are okerragoak, jaso baititu His-

toriak. Pertsonaiak, pasarteak eta tokiak -Iparraldearekin erraz identifikatzen den Sarzina da nagusietakoa- fikziozkoak izan arren, dokumentazio lan handia egin du nobelarako. Besteak beste, Jose Mígel Barandiaranek erbesteartutako jendearengandik jasotako testigatuekin osatu zuten 136 txostetak baliatu ditu.

Hutsuneak bete

Bederatzi urteko mutiko baten lekukotasunak bereziki hunkitu omen Zugastik. Liburu protagonista nagusietako bat ere mutikoa da hasieran: 1936ko udaberri-amaiera euri-tsu hartan aita Antonio eta Arturo anaiarekin batera, ama eta Maria arrebatxoa atzean utzita, erbestearekin bidean jarri zuten Luis.

Lehen geldialdia Sarzina Dapestegui Baitha izeneko egoitzan egingu dute. Handik ere alde egitera behartuta, gauza asko gertatuko dira, pertsonaia ugari azalduko dira... 1936tik 1976ra eta 1998ra egingo du jauzi istorioak, aurrera eta atzera, helburu batekin: gertatutakoa ikertu, iraganeko ahotsak arreta eskaini, itzalak argitu.

Lusek jarriko du abian oroimenaren makina. Ume baten begiek inku-sitakoak helduaren ikuspegitik ikertu eta argitu nahi ditu, eleberri bat idazteko asmoz. Ez du, ordea, berak amaituko lan hori. Egia ere ez du berak aurkituko.

Muga, erbesteak, heriotza, maitasuna, adiskidetasuna... Gai askok dute tokia eleberrian. Horien inguruan, «memoriaren hutsuneak» bete ditu literaturak. Memoria historikoa eta egia ezagutzeak «gizarte guztiarentzat eta, batez ere, gazteentzat» garrantzia nabarmendu duen Zugastik. Iraganen gertatutakoa ez ahazteko orainaldia bizitzeko moduan duen eragina ere azpimarratu zuen. Egungo gerren eta iheslarien berri iristen zaigun beste alde batera ez begiratzeko balio dezake, esate baterako.

BROCANTE
des Quinconces
Burdeos

20 ABRIL - 8 MAYO
10h - 19h # Nocturna el 3 de Mayo

Antigüedades # Brocante # Horticultura # Productos autóctonos # Restauración

+33 (0)6 88 98 20 88
bordeauxquinconces.com

MENÚ PARA GRUPOS
HASTA 100 PERSONAS
¡CONSULTANOS!

Ricky POLO
Comedor Arco Amara

Que cocine Ricky

SERVICIO A DOMICILIO
943 451 561

JUST EAT